DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa
## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2025eko apirilaren 10ean** / 10 de abril de 2025<br>**Udalbatza aretoa (Udaletxea)** / Salón de Plenos (Ayuntamiento)<br>**16:00etan** / A las 16:00 horas |

### GAI ZERRENDA:
### ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Aurkezpen-erronda. | 1 | Saludo de Concejal y ronda de presentación. |
| Aurreko bilkurako akta onartzea. (2024-12-12) | 2 | Aprobación del acta de la sesión anterior. (2024-12-12) |
| Batzorde Iraunkorra eta karguak txandakatzeko proposamena. | 3 | Comisión Permanente y propuesta de rotación de cargos. |
| 2024ko Memoriaren aurkezpena. | 4 | Presentación de la Memoria 2024. |
| Plan zuzendari berriaren gauzatzea. | 5 | Elaboración del nuevo Plan director. |
| Politiken Koherentziako Lantaldearen informazioa. | 6 | Información sobre el GT de Coherencia de Políticas. |
| Zenbait informazio:<br>• 2025eko diru-laguntzen deialdia.<br>• Larrialdietarako eta ekintza humanitarioko laguntzak 2025ean.<br>• Gizarte Kontseiluaren informazioa helaraztea.<br>• 2025erako behin betiko udal aurrekontua | 7 | Informaciones varias:<br>• Convocatoria de Subvenciones 2025.<br>• Ayudas de emergencia y acción humanitaria 2025.<br>• Trasladar la información del Consejo Social.<br>• Presupuesto municipal definitivo para 2025 |
| Galde-eskeak. | 8 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 9 | Información sobre próximas actividades. |

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE - Aniztasuna, Inklusioa eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE - Concejal delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • EAJ-PNV<br>• EH-BILDU |
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ADSIS FUNDAZIOA<br>• ALBOAN<br>• BAKEA ETA ELKARTAZUNA EUSKADI<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA<br>• BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ<br>• CALCUTA ONDOAN<br>• EGOAIZIA<br>• ENRAIZA DERECHOS<br>• ETIOPIAUTOPIA TIKAL<br>• HAURRALDE FUNDAZIOA<br>• LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (ICLI)<br>• LUMALTIK<br>• MEDICUS MUNDI<br>• MUGARIK GABE<br>• MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK<br>• MUGEN GAINETIK<br>• MUNDUBAT<br>• MUNDUKO BEGIAK<br><br>• NAZIOARTEKO ELKARTASUNA (NE-SI)<br>• PROYDE-PROEGA<br>• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNICEF<br>• ZEHAR ERREUXIATUEKIN |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • MUNDU BAKEAN<br>• SODEPAZ<br>• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Lankidetza teknikaria**<br>Técnica de Cooperación<br>**Lankidetza teknikaria**<br>Técnica de Cooperación<br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE | Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 24 kide; horiez gain, Udaleko 4 ordezkari tekniko (emakumezko 2 eta 2 gizonezko), eta Farapi erakundeko 2 emakumezko. |

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| PARTICIPACIÓN | • **Emakumezkoak /** Mujeres = **16**<br>• **Gizonezkoak /** Hombres = **8**<br><br>24 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 4 personas (2 mujeres y 2 hombre, y 2 mujeres de la entidad Farapi. |
| **IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471 lankidetza@donostia.eus |

## BILERAREN NONDIK NORAKOAK:
## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| Saioa hasi aurretik gogorarazi da Herritarren Partaidetzarako eta Berdintasuneko Sailetatik diagnostiko bat egiten ari direla emakumeek Udal Kontseiluetan duten parte-hartzeari buruz. Aurreko saioa FARAPIk egin zuen behaketa eta saio honetan lankidetza saileko langileak egingo du.<br><br>Jakinarazi da saioa amaitzean talde-argazkia egingo dugula, ia ez baitugu Kontseiluaren argazkirik, eta beti berdinak direlako. | Antes de comenzar la sesión se recuerda que desde los departamentos de Participación Ciudadana e Igualdad se está haciendo un diagnostico sobre la participación de las mujeres en los Consejos Municipales. La sesión anterior fue FARAPI quien realizó la observación y en esta sesión lo hará personal del departamento de cooperación.<br><br>Se informa que al finalizar la sesión haremos una foto de grupo, ya que apenas tenemos fotos del Consejo y siempre son iguales. |
| **1.- Aurkezpen erronda.**<br><br>Pertsona bakoitzak bere izena eta zein erakundetatik datorren esaten du. | **1.- Ronda de presentación.**<br><br>Cada persona dice su nombre y de qué organización procede. |
| **2.- Aurreko bilkurako akta onartzea.**<br><br>Aurreko akta onartu da. | **2.- Aprobación del acta de la sesión anterior.**<br><br>Se aprueba el acta anterior. |
| **3.- Batzorde Iraunkorra eta karguak txandakatzeko proposamena.**<br><br>Azaldu nola LANKIDETZARAKO INGENIARITZA entitateko Lourdes batzorde iraunkorreko kide gisa sartu dela eta BAKEA ETA ELKARTASUNA atera dela (BLB edo SODEPAZen ordez, | **3.- Comisión Permanente y propuesta de rotación de cargos.**<br><br>Se explica que Lourdes de ICLI ha entrado como vocal de la comisión permanente y sale PAZ Y SOLIDARIDAD (en vez de ACPP o SODEPAZ como estaba previsto inicialmente). |

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

aurreikusia zegoen moduan).

Bestalde, Batzorde Iraunkorrean planteatutako proposamena helarazten da: karguak txandaka berritzea bi urtean behin. Beraz, datorren urtetik aurrera, inoiz parte hartu ez duten erakundeen artean bokalak esleitzen hasiko dira. Osoko bilkurak metodologia berri hori onartu du.

Por otro lado, se traslada la propuesta planteada en la Comisión Permanente: se renovarán los cargos rotatoriamente cada 2 años. Por lo tanto, a partir del año que viene, se empezará a asignar a vocales entre las entidades que nunca han participado. El pleno acepta esta nueva metodología.

## 4.- 2024ko Memoriaren aurkezpena.

Arloko zuzendariak 2024ko lankidetza-sailaren memoria aurkeztu du. Dokumentua web orrian dago ikusgai.

## 4.- Presentación de la Memoria 2024.

El director del área presenta la memoria del departamento de cooperación del año 2024. El documento está visible en la página web.

## 5.- Plan zuzendari berriaren gauzatzea.

Plan zuzendari berria Mikel Otxotorenarekin egingo da, hark egin baitzuen ebaluazioa. Planteamendua da inkestak eta lan-saioak egitea hainbat eragilerekin (GGKEekin, ordezkari politikoekin, teknikoekin eta beste eragile batzuekin) maiatzean eta ekainean; udan plana idaztea; udazkenean proposamena edukitzea; eta dokumentua abenduan edo urtarrilean aurkeztea Kontseiluan. Horrela, plana 2027an sartuko litzateke indarrean.

Kontuan hartuta ekainean bi lan-saio izango direla plana lantzeko, eta kontseiluaren osoko bilkura ere izango dela, lan-karga handiegia ez ote den izango kontsultatu da, eta osoko bilkura kentzeko aukera planteatu da. Baina ekaineko osoko bilkurari eustea erabaki da, une horretan eragin baitaiteke datorren urteko aurrekontuetan. Halaber, lan-saioak goizez egitea erabaki da, arratsaldez egin beharrean.

Laster inkestak bidaliko dira eta eragile bakoitza bilera espezifikoetara deituko da. Kontseiluko kideak bileretan parte hartzera eta plan berriari ekarpenak egitera animatzen da.

## 5.- Elaboración del nuevo Plan director.

El nuevo plan director se realizará con Mikel Otxotorena, que fue quien realizó la evaluación. El planteamiento realizar encuestas y sesiones de trabajo con diferentes agentes (ONGD, representantes políticos, técnicos y otros agentes) durante mayo y junio; en verano realizar la redacción del plan; otoño contar con la propuesta; y presentar el documento al Consejo en diciembre o enero. De este modo el plan entraría en vigor en 2027.

Teniendo en cuenta que en junio habrá dos sesiones de trabajo con las ONDG para trabajar el plan y también habrá pleno del consejo, se consulta si no será demasiada carga de trabajo y se plantea la posibilidad de suprimir el pleno. Pero se decide mantener el pleno de junio ya que es el momento en el que se puede incidir sobre los presupuestos del próximo año. También se decide realizar las sesiones de trabajo en horario de mañana en vez de por la tarde.

Próximamente se enviarán las encuestas y convocará a cada uno de los agentes a las reuniones específicas. Se anima a los miembros del consejo a participar en las sesiones y aportar así al nuevo plan.

10740n XVII

## 6.-Politiken Koherentziako Lantaldearen informazioa.

BLBetik jakinarazi duenez, GGKEen Koordinakundeak prestakuntza bat egin berri du La Mundialarekin Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentziak eremu deszentralizatuan duen aplikagarritasunari buruz. Zehazki, lantaldea Gazteria Sailaren lan-plana berrikusten ari da, eta Berdintasunekoan ere parte hartuko da.

Mugarik Gabeko Ekonomialarien erakundeak jakinarazi du Eusko Jaurlaritzak interes handia duela gai horretan eta aurrera egiten ari dela. GIPKan lantzeko lantalde bat sortu da, eta kontuan hartu beharreko hainbat esperientzia ezagutu dira. La Mundialek emandako prestakuntza ere jaso zuten, eta orain beste saio monografiko bat dute aurreikusita aurrera egiten jarraitzeko.

## 6.- Información sobre el GT de Coherencia de Políticas.

Desde ACPP se informa que desde la Coordinadora de ONGD se acaba de realizar una formación con La Mundial sobre la aplicabilidad de la CPDS en el ámbito descentralizado. Específicamente desde el grupo de trabajo se está revisando el plan trabajo del departamento de Juventud, y también se participará en el de Igualdad.

Economistas Sin Fronteras informa que en el Gobierno Vasco está muy interesado y está avanzando bastante en este tema. Se ha creado un grupo de trabajo para trabajar la CPDS y se han ido conociendo distintas experiencias a tener en cuenta. También recibieron la formación mencionada de La Mundial y tienen prevista otra sesión monográfica para decidir por dónde seguir avanzando.

## 7.- Zenbait informazio:

### a) 2025eko diru-laguntzen deialdia.

Lankidetzako teknikariak deialdi honetako datuak eman ditu, aurreko urtekoekin alderatuta. Aurrekontua 1.688.372 €-koa izango da guztira; 2024an baino 155.261 € gehiago. Zehazki, Garapenerako Lankidetzaren lerrorako 1.172.089 euroko aurrekontua egongo da. Ildo horretara 26 eskabide aurkeztu dira, 2024an baino 2 gehiago. Sentsibilizazio eta Gizartea eraldaketarako hezkuntzaren lerroan 516.283 euroko aurrekontua egongo da. Ildo horretara ere 26 eskabide aurkeztu dira, 2024an baino 2 gehiago. Baina eskaera batzuk beste sail batzuetara bideratuko dira.

Maiatzean egingo diren zuzenketei begira, akats asko antzeman dira berdintasun-planari dagokionez. Laukitxoa markatu behar da, baldin eta erakundeak plana eduki behar badu, eta, hala bada, planak REGCON erregistroan edo erregistro autonomikoan erregistratuta egon behar du.

## 7.- Informaciones varias

### a) Convocatoria de Subvenciones 2025.

La técnica de cooperación da los datos de la presente convocatoria en comparación con las del año anterior. El presupuesto total será de 1.688.372€; 155.261 € más que en 2024. Concretamente para la línea de Cooperación para el desarrollo habrá un presupuesto de 1.172.089 euros. A esta línea se han presentado 26 solicitudes, que son 2 más que en 2024. En la línea de Sensibilización y educación para la transformación social habrá un presupuesto de 516.283 euros. A esta línea se han presentado también 26 Solicitudes, 2 más que en 2024. Pero hay varias solicitudes que serán derivadas a otros departamentos.

De cara a las subsanaciones que serán en mayo, se han detectado muchos errores respecto al plan de igualdad. Solo hay que marcar la casilla si la entidad está obligada a tener el plan , y si es así éste tiene que estar registrado en REGCON o el registro autonómico.

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Proiektuak eta txostenak behar bezala aurkeztearen garrantzia azpimarratzen da. Ohikoena akats berberak behin eta berriz zuzendu behar izatea da, aurretik abisatuta dagoenean. Horrek esan nahi du lan-karga hirukoiztu ere egin daitekeela. Akats horiek murrizteko azalpneak eta gidatxoak ematen saiatu gara. Etorkizunari begira, ondo aurkeztutako proiektuak sustatuko ditugu.

Se hace hincapié en la importancia de presentar correctamente los proyectos e informes. Lo habitual está siendo tener que subsanar los mismos errores una y otra vez, cuando ya está avisado. Esto supone hasta triplicar la carga de trabajo. Hemos intentado explicar y facilitar guías para disminuir estos errores. De cara a futuro vamos a incentivar los proyectos bien presentados.

## b) Larrialdietarako eta ekintza humanitarioko laguntzak 2025ean.

Zinegotziak jakinarazi duenez, eskaerak jaso ondoren eta esleipen-irizpideei jarraituz, lehenengo hirurei eman zitzaizkien laguntzak:

- SODEPAZ – Oscar urakanak Guantanamoko probintziako (Kuba) Baracoa eta San Antonio del Sur udalerrietan kaltetutako pertsonak goiz sendatzen laguntzea.
- MUNDUBAT – Eskola-gosarien programa; saharar errefuxiatuek egoera ahulenean dauden taldeei nutrizio-laguntza ematea bermatzeko.
- SMH – Gerratik, klima-aldaketatik eta muturreko pobreziatik ihesi doazen migratzaileen eta errefuxiatuen erreskaterako, laguntza humanitariorako eta giza eskubideen defentsarako proiektua, Mediterraneo erdialdeko ibilbidean barrena.

Urtearen amaieran soberakin ekonomikoren bat egongo balitz, larrialdietarako eta ekintza humanitarioko laguntzen partida handituko litzateke, eta hurrengo proiektuak finantzatuko dira, ezarritako hurrenkeran.

## b) Ayudas de emergencia y acción humanitaria 2025.

El concejal informa que una vez recibidas las solicitudes y siguiendo los criterios de adjudicación, se otorgaron las ayudas a las tres primeras:

- SODEPAZ – Apoyo a la recuperación temprana de los afectados/as por el huracán Oscar en los municipios de Baracoa y San Antonio del Sur de la provincia de Guantánamo, Cuba.
- MUNDUBAT – Programa de desayunos escolares; garantizando el apoyo nutricional a los grupos en situación de mayor vulnerabilidad de la población refugiada saharaui.
- SMH – Proyecto de rescate, asistencia humanitaria y defensa de los derechos humanos de las personas migrantes y refugiadas que huyen de la guerra, cambio climático y pobreza extrema por la ruta del Mediterráneo central.

Si a finales del año hubiera algún remanente económico, se incrementaría la partida de ayudas de emergencia y acción humanitaria, financiando a los siguientes proyectos en el orden establecido.

## c) Gizarte Kontseiluaren informazioa helaraztea.

Ordezkariak ezin izan zuen azken saioan parte hartu. Gaur egun, Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren

## c) Trasladar la información del Consejo Social.

La representante no pudo acudir a la última sesión. Actualmente desde la Comisión Permanente del Consejo Social se está trabajando

10740n XVII

| | |
|---|---|
| esparrura ekarpenak egiteko lanean ari da: eremu naturalak eta espazio libreak, ekipamenduak, mugikortasuna, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, ondarea eta paisaia, eta zeharkakoa. | en hacer aportaciones a cana ámbito del Plan general de ordenación urbana: espacio natural y espacios libres, equipamientos, movilidad, vivienda, actividades económicas, patrimonio y paisaje y trasversal. |
| **d) 2025erako behin betiko udal aurrekontua.**<br><br>Lankidetzako zinegotziak jakinarazi du Lankidetzara bideratutako 2025erako aurrekontua 174.252 € handitu dela, iazkoarekin alderatuta. Zehazki, guztizko aurrekontua 2.515.208 eurokoa da, hau da, % 0,49. Urtero % 0,7tik gertuago egoteko borrokan jarraituko dela azaldu du.<br><br>Mugen Gainetiketik uda baino lehen eragina izatearen garrantzia azpimarratu du, orduan lantzen baitira datorren urteko aurrekontuak. Horregatik, Ogasun zinegotziarekin bilera bat egiteko aukera planteatu du, aurrekontu-proiektua egiteko metodologiari buruz hitz egiteko. GGKEen Koordinakundeak ere Ogasun sailburuarekin biltzeko asmoa du. Bilerak egitearen helburua elkar ezagutzea eta eskatzen dena azaltzea da. Aurrekontuen lantaldeak lanean jarraituko du ildo honetan. | **d) Presupuesto municipal definitivo para 2025**<br><br>El concejal de cooperación informa que el presupuesto para 2025 destinado a Cooperación ha aumentado 174.252 € en comparación con el año pasado. Concretamente el presupuesto total es de 2.515.208 euros que corresponde al 0,49%. Explica que se seguirá luchando para poder estar más cerca cada año del 0,7%.<br><br>Desde Mugen Gainetik insisten en la importancia de hacer incidencia antes de verano, ya que es entonces cuando se trabajan los presupuestos del próximo año. Por eso plantea la posibilidad de realizar una reunión con el Concejal de Hacienda para hablar sobre la metodología en la elaboración del proyecto de presupuesto. Desde la Coordinadora de ONGD también tienen previsto reunirse con el Consejero de Hacienda. El objetivo de estar reuniones es conocerse y plantear lo que se pide. Se seguirá trabajando desde el grupo de trabajo de presupuestos. |
| **8.- Galde-eskeak.**<br><br>• Politiken koherentziaren ikuspegiarekin lan egiteak dakarren filosofia-aldaketari buruzko gogoeta egiten da. Guztiok GGIrantz lan egiteko modua alienatzea dakar, eta, horretarako, dinamikak eta pentsamoldeak aldatu behar dira. Arlo pertsonalean zein pertsonalean. | **8.- Ruegos y preguntas.**<br><br>• Se reflexiona sobre el cambio de filosofía que supone el trabajar con un enfoque de Coherencia de políticas. Supone alinear la forma de trabajar de todas y todos hacia el DHS, y para ello hay que cambiar dinámicas y mentalidades. Tanto en lo personal como en lo personal. |
| • SEADeko Lagunen Elkarteko ordezkariak deitoratu egin du bileran izandako akustika txarra.<br><br>• Bestalde, Manteo inguruan migratutako pertsonen kokalekua hustu izana salatu | • La representante de la Asociación de Amigos y Amigas de la RASD lamenta la mala acústica que se ha tenido durante la reunión.<br><br>• Por otro lado denuncia el reciente desalojo del asentamiento de personas migradas en |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| du. Kokalekuan bizi ziren pertsonak gizarteratze-prozesuan zeuden, eta HHEetara joaten ziren aldizka, lan egin ahal izateko. Udalari eskatu dio pertsona horiei konponbideak emateko, desalojatu beharrean; adibidez, La Sirenako aterpetxea erabili zitekela. Zinegotziak kontuan hartu eta eskaera helaraziko du. | la zona de Manteo. Las personas residentes en el asentamiento estaban en proceso de inclusión, asistiendo a EPAs regularmente para poder trabajar. Pide al ayuntamiento que de soluciones a estas personas en vez de desalojarlas; como por ejemplo utilizando el albergue de La Sirena. El concejal toma nota y trasladará la solicitud. |
| **9.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.**<br><br>BLBko kideak jakinarazten du datorren maiatzaren 8an Emakumeen Etxean Elkarrizketa bat egongo dela Feminismoa Afrikako euskal emakumeen ikuspegitik jorratzeko. | **9.- Información sobre próximas actividades.**<br><br>ACPP informa sobre la actividad que realizarán el próximo 8 de mayo en la Casa de las Mujeres “Conversatorio: Feminismo desde la mirada de mujeres vascas africanas” |

10740n XVII